

ZIENTZIAREN ETA BERRIKUNTZAREN MINISTERIOA

**Ikerketa sareetarako laguntzak, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoa eta haren Transferentzia Bultzatzeko Estatuko Programaren esparruan (azken hori 2021-2023 Ikerketa Zientifikoaren, Teknikoaren eta Berrikuntzakoaren Estatuko Planaren barruan dago)**

[Deialdia](#)

Aurkezteko epea: 2022/09/22tik **2022/10/11ko 14:00etan**

<b>XEDEA</b>	Ikerketa sareak sortzea, gaitasunen osagarritasuna sustatzeko eta dauden ikerketa baliabideak optimizatzeko. Horrela, sinergiak sortuko dira hainbat erakundetako ikertaldeen artean. Sare horiek xede dituzten jarduera zientifiko-teknikoei beren balio erantsia erakutsi behar dute, helburu komun eta partekatutako lortzean eta beste tresna batzuen bidez finantzatu ezingo liratekeen jarduerak egitean oinarrituta.
<b>JARDUKETEN DESKRIBAPENA</b>	<p>a) Sare tematikoak: jakintza arlo tematiko berean edo antzekoan kokatutako ikertzaileek osatuko dituzte, eta haien koordinatzaileak 2017-2020ko I+G+Bko Estatuko Planaren deialdietan finantzatutako I+G proiekturen bat zuzenduta eduki behar du aurrez (7.2 artikuluan zehazten dira).</p> <p>b) <i>ICTS sareak: indarrean dagoen ICTS mapan sartutako azpiegituren ordezkariak (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Kontseiluak onartua) eta, hala badagokio, azpiegitura horiekiko independentea den aditu batek osatuko dituzte.</i></p> <p>c) <b>Sare estrategikoak: honako ekimen estrategiko hauetan parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak osatuko dituzte: I+G+Bko aliantzak eta azpiegituren Europako partzuergoak (ERIC).</b></p>
<b>Gauzatzeko epea</b>	Proiektuak egiteko epea bi urtekoa izango da, emakidaren ebazpenean zehazten den egunetik kontatzen hasita. Hasiera data ezingo da izan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa.

<p><b>Koordinatzailearen edo sareko pertsonalaren lotura BETEKIZUNA</b></p>	<p>Erakunde eskatzailearekin edo 5. artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen dituen beste edozein erakunderekin funtzionario harremana, estatutu harremana, lan harremana edo beste edozein lotura profesional duten sareko koordinatzaileak edo taldeko langileek betetzen dute lotura betekizuna, betiere erakunde eskatzaileak aurkeztutako eskabidean parte hartzeko berariazko baimena ematen badio, <b>eskabideak aurkezteko epea ixten den egunetik jarduketa gauzatzeko epea amaitzen den arte.</b></p>																
<p><b>Talde ezaugarriak</b></p> <p><b>SARE TEMATIKOAK</b></p> <p>a) Sarearen koordinatzailearen betekizunak</p> <p>honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Doktorego bat izatea.</li> <li>2. Loturaren betekizuna betetzea, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.</li> <li>3. Taula honetan jasotako deialdiren batean onartutako – amaituta edo indarrean dago daiteke– ikerketa proiekturen bateko ikertzaile nagusia izan izana:</li> </ol> <table border="1" data-bbox="351 1052 1348 1635"> <thead> <tr> <th>Deialdiaren urtea</th> <th>Identif. BDNS</th> <th>Modalitatea</th> <th>2017-2020ko I+G+Bko Planaren Estatuko Programa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>2018</td> <td>412118</td> <td>Ezagutza Sortzeko I+Gko proiektuak</td> <td>Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko Estatuko Programa</td> </tr> <tr> <td>2018</td> <td>412122</td> <td>I+G+Bko proiektuak «Ikerketa erronkak»</td> <td>Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa</td> </tr> <tr> <td>2019 eta 2020</td> <td>472653 eta 532399</td> <td>I+G+Bko proiektuak</td> <td>Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko eta Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa</td> </tr> </tbody> </table> <p>b) Sareko taldea osatzen duten pertsonak honako betekizun hauek bete behar dituzte (memoria zientifiko-teknikoan deskribatutako talde parte hartzaile bakoitzaren ordezkari gisa jardungo dute horiek):</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Doktorego bat izatea.</li> </ol>		Deialdiaren urtea	Identif. BDNS	Modalitatea	2017-2020ko I+G+Bko Planaren Estatuko Programa	2018	412118	Ezagutza Sortzeko I+Gko proiektuak	Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko Estatuko Programa	2018	412122	I+G+Bko proiektuak «Ikerketa erronkak»	Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa	2019 eta 2020	472653 eta 532399	I+G+Bko proiektuak	Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko eta Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa
Deialdiaren urtea	Identif. BDNS	Modalitatea	2017-2020ko I+G+Bko Planaren Estatuko Programa														
2018	412118	Ezagutza Sortzeko I+Gko proiektuak	Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko Estatuko Programa														
2018	412122	I+G+Bko proiektuak «Ikerketa erronkak»	Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa														
2019 eta 2020	472653 eta 532399	I+G+Bko proiektuak	Ezagutza Sortzeko eta I+G+Bko Sistema Zientifikoki eta Teknologikoki Indartzeko eta Gizartearen Erronketara Bideratutako I+G+Bko Estatuko Programa														

2. Loturaren betekizuna betetzea, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Taldea talde parte hartzaileetako gutxienez 6 ordezkari eta gehienez 15ek osatuko dute (sareko koordinatzaileak ordezkatzeko duen taldea barne).

**Sare ESTRATEGIKOAK:**

a) Sarearen koordinatzailearen betekizunak honako hauek dira:

1. Doktorego bat edo unibertsitate titulu bat (lizentzia, ingeniari, arkitektura edo gradua) izatea.

2. Loturaren betekizuna betetzea, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Sareko taldea osatzen duten pertsonen betekizunak sareko koordinatzailearentzako ezarritakoen berberak izango dira.

5. Ezingo da sareko koordinatzaile gisa parte hartu, ezta sareko taldeko kide gisa ere, 2022ko deialdi honetako eskabide bat baino gehiagotan, sarean edozein modalitatetan, salbu eta sare estrategiko batean edo ICTS batean parte hartzen bada (hori bateragarria izango baita sare tematiko batean parte hartzearekin).

6. Sareetan parte hartzen duten taldeek ordezkari bakarra izango dute sarean: sarearen koordinatzailea edo sareko taldeko pertsona bat. Memoria teknikoan agertzen diren ikertalde edo erakunde parte hartzaileetako gainerako pertsonen egiten dituzten zereginen ondoriozko gastuak egotzi ahal izango dituzte, sareko taldekoak ez badira ere, betiere haien parte hartzea behar bezala justifikatzen bada jarraipeneko eta amaierako txosten zientifiko-teknikoetan.

**Diruz lagundu daitezkeen gastuak:**

- **Langileen kostuak.** Langileen gastuak, jarduketara bideratuta egon beharko dutenak.

Ezin izango dira egotzi:

1. Sareko koordinatzailea eta sareko taldea osatzen duten pertsonen kontratatzeak.
2. Prestakuntza bekak eta prestakuntza kontratuak.
3. I+G+Bren arloan Talentua eta Enplegarritasuna Sustatzeko Estatuko Programaren deialdiek edo Ikerketa Zientifikoaren, Teknikoaren eta Berrikuntzakoaren Estatuko Planetako programa baliokideek diruz lagundutako kontratuen ondoriozko gastuak.
4. Jarduera hasteko onartutako eguna baino lehen egindako langileen gastuak.
5. Estatuko edo autonomia erkidegoetako edo beste erakunde publiko batzuetako deialdi publikoetan edo Eskualde Garapeneko Europako Funtzarekin (EGEF) edo Europako Gizarte Funtzarekin (EGF edo EGF+) batera finantzaturako kontratazioarako laguntzek estaltzen ez duten kostu gehigarria.

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Sareko jarduera zientifiko-teknikoak (bilerak, batzordeak, jardunaldiak edo mintegiak) antolatzearen eta horietara joatearen ondoriozko gastuak.</b> Honako gastu hauek sartzen dira: publizitatea, aretoen alokairua, aholkularitza eta itzulpen gastuak, eta jarduera horiei egotzen zaizkien bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Sareko kideek (koordinatzaileak eta taldeko kideek) egotzi ahal izango dituzte horrelako gastuak. Halaber, sareko jarduera zientifiko-teknikoetara gonbidatutako pertsonen bidaia, ostatu eta mantenu gastuak egotzi ahal izango dituzte, betiere sarearen esparruan aurkezpenen bat egiten badute eta jarraipen zientifiko-teknikoko txostenetan jasota badaude. Laneko jatorduetako eta protokolo arretako gastuak ez dira hautagarriak izango. Europako Osasun Txartelak edo Europako Osasun Txartelaren Ordezko Behin-behineko Ziurtagiriak balio ez duten herrialdeetara egindako joan-etorrien kasuan, laguntza medikoko aseguruaren kostua hautagarria izango da. Ez dira gastu hautagarritzat hartuko adierazitakoak ez diren aseguruaren kostuak, ez eta bisa lortzeko joan-etorrien gastuak ere.</li> <li>• <b>Sarearen jarduerak hedatzeko gastuak</b>, web tresnen eta tresna informatikoen garapena eta erabilera barne.</li> <li>• <b>Auditoretza txostenaren ondoriozko gastua</b>, justifikazio ekonomikoan aurkeztu beharko dena, gehienez 1.200,00 euroko mugarekin.</li> <li>• <b>Ez dira berariaz hautagarriak izango</b> honako gastu hauek, beste batzuen artean: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Material inbentariagarri edo suntsikorraren, horniduren eta antzeko produktuen gastuak.</li> <li>○ Biltzar zientifikoetan, nazionaletan edo nazioartekoetan, izena emateko gastuak, eta elkarte zientifikoaren kuotak.</li> <li>○ Sarean parte hartzen duten taldeen ikerketen emaitza zientifikoak argitaratzeko eta zabaltzeko gastuak.</li> <li>○ Jarduera zientifiko-teknikoetan parte hartzeagatiko ordainsariak, ezta hizlariari emandako ordainsariak ere.</li> </ul> </li> <li>• <b>Ez da finantzatuko zeharkako kostuen kontzeptua.</b></li> </ul>	
<b>AZPIKONTRATAZIOA</b>	Sare tematikoen kasuan, azpikontratazioa % 25erainokoa izan daiteke. Sare estrategikoen kasuan, berriz, % 50erainokoa.
<b>Eskabidea UPV/EHUn aurkeztea- Koordinatzailea UPV/EHUkoa izanda</b>	<b>2022/07/10: <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> e-mailera – UPV/EHU Koordinatzailearen datuak bidaltzeko epea.</b> Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira eskabide aplikazioaren bidez (koordinatzailea sartuko da aplikazio horretara) eta sinadura eta erregistro elektronikoen bidez (erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria sartuko da). Koordinatzailea eskabide aplikaziora sartuko da, eta bertan formulario elektronikoa bete eta 14. artikuluan eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Eskabidea bete ondoren, koordinatzaileak baliozkotu egingo du, eta telematikoki bidali. Ondoren, aplikazioak sortuko duen dokumentua

	<p>inprimatuko du, bertan jasoko ditu koordinatzailearen eta sareko taldeko gainerako langileen idatzizko sinadura originalak edo elektronikokoak, eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren esku utziko du, gorde dezan. <b>Eskabide itxita</b> <b><a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> HELBIDERA</b> <b>BIDALTZEKO BARNE EPEA: 2022/10/09</b></p> <p>Azkenik, erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak elektronikoki sinatuko du eskaera; horrela aurkeztutzat joko da.</p>
<b>'Persona de contacto' eremua aplikazioan</b>	<p>Datos de la persona de contacto responsable de la gestión de estas ayudas en la entidad Nombre y apellidos : Aranzazu Ibabe Lujambio Teléfono : 946018008 Correo electrónico : <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> Cargo : Jefa de Servicio de Proyectos e Infraestructuras</p>
<b>HARREMANETARAKO DATUAK</b>	<p><a href="mailto:Convocatorias.dgi@ehu.es">Convocatorias.dgi@ehu.es</a> 946018008</p>